

3.6.1. UDAL-ALORRAK. GIZARTE-EKIMENETARAKO ZENTRO KOMUNITARIOAK. JARDUERA NAGUSIAK.

GIZARTE-EKIMENETARAKO ZENTRO KOMUNITARIOAK

2017ko helburuak:

- A.** Elkartegintzaren mugimenduari babesteko estrategiak eskaintzea, mugimenduok hiritarrek identitatearen adierazgarriak bilatzerakoan, barne bitartekoen formulazioa egiterakoan eta gatazken autokonponketan esku hartzea bideratzeko elementua direlako.
- B.** Gizarteko taldeen eta belaunaldien taldeen arteko bilketa, elkarbizitza eta solidaritate kuotak sustatzea, arriskurik gehien duten pertsona edo taldeen bereizkeria prozesuak zuzentzeko eta prebenitzeko.
- C.** Auzoetako udalaren herri-zerbitzuen maila handitzea, hurbiltasun eta kudeaketa hainbatzeko irizpideekin, eta bertako biztanleen interes zehatzetara egokitzeko.
- D.** Biztanleen inplikazio eta erantzukidetasuna sustatzea, jardueren martxan eta erabakiak hartzeari eta lehentasunak hautatzeari dagokionez.
- E.** Udalaren prestazio tekniko eta ekonomikoen osagarria izatea, lokalen oinarrizko sarea eskainiz.
- F.** Iruñeko Udalak sortzen dituen Gizarte Ekintzen Egitaraua garatzeko esparru fisikoak eskaintzea.
- G.** Udalaren beste arlo batzuetatik auzoetan sustatzen diren prebentziozko ekimen soziokulturalak osatzea eta koordinatzea.

Jarduera nagusien laburpena:

Kokatuta dauden auzoetako auzo-elkarteek erabili dituzte komunitate-zentroak, eta dauden auzook bezain askotarikoak izan dira horietan egindako jarduerak. Jarduera horien artean auzoetako jaiak, musika- zein dantza-entseguak, prestakuntza-jardunaldiak, nerabeekiko aisia-ekintzak eta abarrak daude.

Milagrosa auzoak 2018ko urriaren 19an sinatu zuen Iruñeko Udalaren eta Ilargienea GEZK erabiltzen duten taldeen ordezkarien arteko lankidetzak-hitzarmena, komunitate-esparruko erabilera eta funtzionamendua arautzeko.

PREBENTZIO-EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUA

2017ko helburuak:

Orokorra: Haurren eskubideak sustatu eta defendatzea bere jardun-esparruan (auzo hauek: Sanduzelai, Alde Zaharra, Txantrea, Arrotxapea, Etxebakoitz, Milagrosa, Azpilagaña, Mendillo-
rri, Erripagaina eta Buztintxuri): ume eta nerabeei zuzendutako prebentzioa eta babesa, haur
eta gazteen auzo-elkarteen eta beste baliabide soziokomunitario batzuen aldetik.

1. Komunitatea babesteko oinarrizko prebentzio-egitura garatzea, auzoaren egoerari egokitu-
ta.

2. Bigarren mailako prebentzio-jarduerak garatzea, auzoan gizarte-egoera zaila duten ume eta
nerabeenganako komunitate-babesaren ikuspegitik. Maila guztietan babesik gabe gelditzeko
ariskuaren adierazleak dituzten adingabeen kasuei buruzkoa da babesa.

Jarduera nagusien laburpena:

2017an, zortzi izan dira auzoetan jarduerak egin dituzten prebentzio-taldeak, Buztintxurikoa
gehitu baita. Talde horrez gain, auzo hauetan ere baziren lehendik: Arrotxapea, Txantrea, San-
duzelai, Alde Zaharra, Etxabakoitz, Milagrosa-Azpilagaña eta Mendillorri-Erripagaina. Nabar-
mentzekoa da zerbitzu horiek zer-nolako gaitasuna duten nerabeek jardueretan boluntario
gisa parte har dezaten sustatzeko. Aurten 676 gaztek egin dute. Gainera, aldi berean 461
nerabe eta gaztek komunitate-hezitzaileko prestakuntza jaso dute (293 neska eta 168 mutil).